


Hornitu

mobila BBK-ko kutxazainetan



Hornitu mobila erarik erosoenean

Edozein izanik telefonia mobileko zure operadorea, dagoeneko, edozein txartelekin hornitu dezakezu zure telefonoa, erraz-erraz, BBK-ko edozein kutxazainetan.

bbk =

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA
beirria

2002ko AZAROA / 49. zkia. DOHAIN

MIKEL ZABALA

**"MATXINADETAN BEGOÑARREK
PROTAGONISMO HANDIA
EDUKI ZUTEN"**

**Santutxuko Krosaren
lehenengo mende laurdena**

**Mallona
eta Quito**

**Gaztediren azken
hamar urteak
liburu batean**



5 - FUNICULAR DE ARCHANDA

Sekating


L. Roisin, Fot.

Artxandako irriskaketa pista

Aspaldikoa da gure erretratu hori, baina gaur egun be Artxandan topatuko dogu irriskaketa pista edo patinetan ibilteko leku hori. 1915ean beharrean hasi zan funikularraren geltokiaren ondo-ondoan jarri eben. Forma biribila eukan eta garai batean arrakasta itzela euki eban. Gaur egun, ostera, total galduta ikusten dogu. Artxanda inoiz ipiniko ete dogu behar eta merezi dauan moduan?

Argazia 'Bilbo eta bere itsadarreko herriak postatxarteletan' liburutik hartu dogu. Liburu ha Luis Amann Egidazuk eta Roman Alonso de Miguelek paratu eben.

Norbaitek gure bazterrotako argazki zahar edo bestelako irudirik baleuko, eskertuko genduke kopia bat egin ahal izatea. Holan, denon gozamenerako atal hontan ipiniko dogu. Aldez aurretik, esker mila.



▶ Iritzia	4	▶ Inkesta	19
▶ Santutxuko Herri Krosak 25 urte ...	5	▶ Mahatsberriak	20
▶ Begoña eta Euskerea	8	▶ Hezkuntza	24
▶ Nontzeberri.com	10	▶ Mendia	27
▶ Mallona eta Quito	12	▶ <i>Gaztediren</i> liburi berria	28
▶ Elkarrizketa: Mikel Zabala	15	▶ Horoskopoa/Agenda	30

Lehenengo egunien Mallonatik pasau nintzen ta han ingeruen koadrillatxue ibili zen berbaz ta festan. Amerikanoak edo emoten zeurien, peruanoak edo hango partekoak. Ekuadorrekoak ziriela esan zosten batek, ta han batuten direzela astien behin edo, ba alkarrerri ikusi ta parraplada batzuk egin, ta kontuek bota ta herriko barridxek kontau ta sikieran parada-txu bat gusture emon... Ondo ba, biximodu gogorra honeina, herritik urrun ta holango momentuek estimatekoak ixengo direz.

Ta pentsau neuen: geu euskaldunok bere holango momentutxue bageunko, askok estimadu egingo genduke gero! Herridxe ez dekogu urrun, bertone-edo, baie gero ta urrunago emoten dau sarri. Egun-

dokoa egin dogu, interneten bere sartu gara, euskerie han ta hamen leidu lei: liburuek, rebistek, egunkaridxek, panfletoak, kartelak... telebisiñoa bere ikusi lei. Baie gure herridxe birtuala emoten hasi da. Nun juntaten direz euskaldunek astien behin astie zelau joan dan kontateko, edo eztaikitnonarrebiek umie eukin dauela jakitteko, edo urlidxek liburue egin dauela esateko, edo liburuena zelau doan pre-guntateko, edo hori kontue internetekoa zelau dan esplikateko, ta ha bestie txapelagaz jantzan zelango guapo dagoan erakutsiteko? Jakin, horreitariko kontuek asko Bertonetik jakin leitekez, nun eskribidu badago-ta, baie esan... Mallonan esan biherko doguz.

Firmatue: Berbaldun birtuala

BILBO-GALDAKAO KALEAREN
ESANGURAREN INGURUAN

Begoñako elei-zatean badira kale batzuk, Bilbora begira barik, Bilbotik kanpora begira dagozanak. Esan leiteke, hainbaten, ezkutuko saihebidak ziranak kale moztuaz azaldu nahi izan euskueza-la.

Edu horretakoa da gaur orri honeetara dakardana: Bilbo-Galdakao kalea; izan bere, kale honek Miraflores etorbideari segida emoten deuto Boltetan aldean, eta, modu horretara, kaleak bat egiten dau Zumalakarregi etorbideagaz. Eta horrela heltzen da N-634 kaminora, hau da, Bilbo-Donostia errepide nagusira.


Orain dala gitxi, biribildune bat egin da azken kamino horregaz bat egiten dan lekuan, Ibarsusin. Azken langintza haren helburua, barriz, izan da trafikoa arintzea, eta benetan jadetsi dala esan behar da.

Kale honetan, historiaren eretzean, hainbat fabrika garrantzitsu topatu geinkezan lehengo urteetan, baina hareek urteen puruz galtzen joan dira; beti bere, oraindik badira lehengo lantegi zahar bakan batzuk; halanda bere, garrantzitsuagoa da azken urteetan lantegi zaharrak ordeztu etorri diran enpresa barrien ekarria; lehenengo eta bat, industri arlo barriak ekarri dira (komunikazioa, auto-salmenta...), bestetik, hirugarren arloko beste denda eta lantegi txiki batzuk, hornikuntzari lotutakoak, azaldu dira, eta horreek bere beste bizimodu bat emon deutse kaleari.

Geroenean, irakurleon gomutara ekarri nahi dot Bilboko Metroaren sarrerak ekarri dauan jendearen joan-etorri barria, bai eta kaleko azokak (laster baten, itxuraz, beste toki batera eroango danak) astegoienetan jartzen dauan giro berezia bere.

GOTZON LOBERA REVILLA

LORURI



Loruri edo Ciudad-Jardin izeneko etxe multzoa Pedro Ispizua arkitektoak eginiko proposamen baten ondorioa da. Bere nahia zen Bilbon etxebizitza faltak zerkarren arazoa konpontzen laguntzea. Proiektua gauzatzeko elkarte kooperatiboa sortu zuten 1921an -Sociedad Cooperativa La Ciudad Jardin-, urte hartako etxe merkeen legearen babesean. Kooperatiban Bilboko Udaleko, Aldundiko eta Estatuko funtzionarioak sartu ziren. Baita banketxetako langileak, beste enprestatokoak eta kazetariak ere.

Guztira 112 txalet proiektatu eta eraiki zituzten, denak familiabikoak. Hiru motakoak ziren, A, B eta C, azaleraren arabera. 1923ko urriaren 28an lehenengo harria jarri zuten. Amaitu, bi epetan amaitu zuten. Lehenengo 86 etxebizitzak 1925eko uztailean bukatu zituzten eta gainerako 26ak 1928an.

Artxandako egian egoteagatik paisaian aldatuta handia ekarriko zutela jakinda, egileek 'neovasco' izeneko estiloan egin zituzten, txukun egin ere. Estilo horrek gure herriaren etxebizitza tradizionala eta Ingalaterrako hirietako periferiako arkitekturen zituen oinarri. Txaletok kalitate handiaz eraiki zituzten eta Bilbora begira ikuspegi ederra eman zieten.

Hainbat urtez Bilboko paisaian errez nabarmendu zen Loruri. Gerra osteko eraikitze gogo asekaitez eta Solución Norte autobideak etxe multzo horren kalitatea eta bertan bizi direnen bizimodua kaltetu zuten.

Hainbat erreforma lan ere sufritu ditu eta plangintza baten faltan multzoaren izaera bera desitxuratu diote. Hobeto zainduta egon beharko litzateke. Bilboko Plan Orokorra babesa ematen dio Loruriko etxe multzoari eta bertako txalet guztiei.

IÑAKI URIARTE

**Bizkaiko Foru
Aldundiko
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur
Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa:
94 473 54 48
e-posta:
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA
Hektor Ortega
ERREDAKZIOA:
Arrate Diez,
Eneritz Ibarondo,
Irene Berro,
Iratxe Ruiz,
Unai Cuevas,
Itxaso Perez

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Iñaki Berastegi
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:
Jaione Letamendia,
Alberto Ugarte, Iñaki
Gaminde, Igor M. de
Vidales, Santutxuko
Bertso Eskola,
Iñaki Aurrekoetxea,

Joseba Zelaia,
Benito Fiz


ADMINISTRAZIOA ETA
PUBLIZITATEA:
Koldo Urrutikoetxea,
Zuriñe Martinez

LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98

ALE KOPURUA:
1.200

SANTUTXUKO KROSA, LASTERKETA BATEN MENDE LAURDENA

URTARRILAREN 6AN HOGEITA BOSGARREN EDIZIOA KORRITUKO DUTE



"Hogeit urte ez dira ezer" dio tangoak. Hogeita bost urte, ordea, nahikotxo dira auzo bateko lasterketa batentzat. Izan ere, Santutxuko Krosak ("Sei Izar" krosak) mende laurdena beteko du datorren urtarrilean; kontutan hartzeko urteurrena. Lasterketa honi buruz gehiago jakiteko asmoz, BERTON Santutxuko Familia Elkartekoekin bildu da eta 1978an lehen kilometroak bete zituen krosari buruz solasean ibili da.

Testua: Unai Cuevas

Argazkiak: Santutxuko Famili Elkartea / Iñigo Azkona



**IRUDIA SORTZEN DUGU
BILBO**

Santutxu kalea, 46
Tfnoa: 944 333 935 www.bilbaoweb.com/Spedro
Santutxu kalea, 37 E-Mail: iban.lopez@navegalia.com
Tfnoa: 944 128 714

**HORTZ KLINIKA
GERMÁN BERGARETXE**

GABRIELARESTI, 30 4. G
TXURDINAGA

94 412 82 74

CYBER TIME
Ordenagailua gurea da
ideiak, zureak

Sarean Jolasak
Internet
Inprimaketa
Eskanerra
Datu grabaketak

Aita Pernet, J.
48004 Santutxu
Bilbo

Tfnoa/fax: 94 459 74 06
E-mail: cyber-time.euskalnet.net
http://www.cyber-time.euskalnet.net



Udeia, aipatu elkarteko kide batzuei bururatu zitzairen, "hori bai, hasieratik argi geneukan berezia izan behar zuela eta horren ondorioz izaera guztiz popularraz hornitu genuen. Santutxutarentzat egindako lasterketa bat nahi genuen", azpimarratzen du Joselu Kerejetak, sortzaileetarikoa bat eta familia elkarteko kideak. Lehendabiziko edizio hartan 300 bat auzokidek parte hartu zuten. Nahiz eta izaera herrikoa eman nahi izan, aurreneko bi urteetan garaikurrak banatu zituzten maila ezberdinetan garaile atera zirenen artean. Honek tira-bira ugari sortu zituen eta haserre nabarmenak eman ziren aurreneko postuetan sailkatu zirenen artean. Ondorioz, garaikurrak emateari uko egin zioten. "Aurreneko urte haietan guztiek eramaten zuten oparitxo, baina iskanbilak zirela medio kentzea erabaki genuen", gogoratzen du familia elkarteko kideak. Aurreneko edizioak izandako harrera ona zela eta, hurrengorako publizitate arloa gehiago landu zuten, jendea gehiago inplikatu zen eta egun oraindik ere diru laguntza ematen duen BBK-k ere bere aportazio eman zuen. "Erakunde honek laguntza handia eskaintzen digu: kartelak, dortsalak, kamiseten kostearen zati bat ordaintzen



du... Eta azken bi urtetan Bilboko Udalaren laguntza jaso dugu baita. Beraz, azkenaldian ez dugu izan galerarik", azpimarratzen dute antolatzailak.

Zergatik errege egunean? Erantzuna laburra bezain kuriozoso da: "A voleo". Dena den, familia elkartetik aipatzen duten moduan "aurretik bage-nekien data egokia zela eta azkenean horrela izan da".

PASADIZO BARREGARRIAK

Hogeita bost urte hauetan hainbat gora behera bizi izan ditu Santutxuko Krosak. "Txurdiragako parkea egin aurretik polizia armatuarentzat garaje batzuk ezarri zituzten eta guk gune berdea errebindikatzeko erabili nahi izan genuen krosa", adierazten du Kerejetak. Pasadizo ugari ere bildu ahal dira krosaren historiari begiradaxo bat eman ondoren. "Lagarren edizioan edo, Otxarkoagatik pasa zen ibilbidea, gero tortillarako bidea hartu eta berriro ere Santutxun sartuz. Egun hartan, lasterketak Otxarkoagako merkatuarekin bat egin zuten eta partehartzaileak erosketak egiten zebilen



jendearen artean pasa ziren, sekulako nahaspila sortuz". Luzera aldaketaz gain (lehen pixka bat luzeagoa zen) ibilbide aldaketak ere pairatu ditu krosak. Jendearen kexak direla medio bigunagoa bihurtu da. Izan ere, "jende ugari aldapa ugarien ondorioz ez baitzeturten". Ildo honetatik, kiroldegitik Basarratera heltzeko dagoen aldapa igotzen zuteneko garaiak jende askok

ez ditu erraz ahaztuko.

Izena ere ez du beti bakarra eduki krosak. Juanjo Basterra auzokidearen heriotzaren ondoren, lasterketa "Juanjo Basterra Memoriala" deitu zen, baina azkenean kentzea erabaki zuten. Era berean, egun, Santutxuko Sei Izar Krosa bezala ezagutzen da, 1995ean Balaitusen bizia galdu zuten sei auzokide gazteen oroimenez.

Datu estatistikoei so eginez, orain dela zortzi bat urte 800dik gora atletek parte hartu zuten, lasterketaren partehartze errekorra ezarri. Iazko edizioan, bestalde, 700 korrikalarik parte hartu zuten. Izen edota partehartzaile ospetsuen artean, hainbat aldiz irabazle izandako Jon Bilbao, Iñaki eta Eduardo Gaston anaiak edota Virginia Berasategi triatleta ezaguna aipa daitezke, besteak beste.



Aurtengoa, berezia

Mende laurdena betetzen duen edizio honetako prestaketa lanak urrian hasi. Edizio berezi honetarako aldaketa batzuk egongo dira. "Partehartzaileen artean errege eguneko errokoak zozketatuko ditugu. Lasterketaren arauak dagokienez, infantil maila 14 urte bitartera handitu dugu; hortik aurrera senior mailan lehiatuko dira. Bestalde, umeen artean desberdintasun nabaria egon ez dadin bitan banatuko ditugu", azaltzen dute antolatzailak. Halaber, liburu bat kaleratzeko eskaintza izan du familia elkarteak eta honetaz gain komunikabide ezberdinak deituz aurkezpen bat egiteko asmoa dute baita. Dena den, honen gainean berri gehiago egonez gero, BERTONeko irakurleak jakinaren gainean edukiko zaituztegu.

Hau guztia eta beste hainbat ekintza burutu ahal izateko hainbat garrantzi duen auzokideen laguntza ezinbestekoa izango da. "Aurreko urteetan trafikoa zuzentzen eta antolakuntza lanetan lagundu izan duten boluntarioen lana goraipatzekoa da".

Azken finean, auzotarrentzat hain berezia bihurtu den egunak urteurren berezia beteko du datorren urtarillaren seian eta antolatzailak zabaldu nahi duten ideia betetzea espero dugu: "Errege egunean bilatzen duguna zera da: auzotarrak kaleetan barna korrika egitea eta egun batez, behintzat, oinezkoak kaleen jabe izatea. Oso atsegina izaten da familiak batera korrika egiten ikustea; aita-amak seme-alaba txikiekin batera lasterketan parte hartzea". Hala bedi!


Salaketak Enkestak
Txaskarrilloak
Otxarkoaga eta txurdiragan
WWW.PA-YA.ORG
Berriak Herri mogimendua Euskal kultura
Gure presoak Pa...yak baditu alternatibak



BEGOÑA ETA EUSKAL KANTUTEGIA (I)

MAHATSORRIOK KANTU KANTARI BIZI IZAN GARA MENDEETAN ZEHAR. GURE ASABA ZAHARREK KANTETAN EGITEN EBEN EUREN OSPAKIZUNAK, EUREN OTOITZAK, EUREN ERRITUALAK ETA EUREN BEHARRA. KANTU HORIETATIK GITXI BATZUK EZETUTEN DOGUZ. BESTE ASKO BETIKO GALDU DIRA. ETA BADIRA BESTE BATZUK, BEGOÑAKOAK IZAN EZ ARREN BEGOÑAREN IZENA DARABILENAK.

Begoña eta Euskerea



Kantu zaharretako batzuk orri hontan bertan emon doguz argitara. Santa Ageda bezperako eskeko kantua, esate baterako, azken urteotan atzera be kantatu da gure auzoetan eta Arbolantxa aldeko baserrietan Asapala euskera alkaterearen eskutik. Karmelo Elorriagaren ahotik hartu eben bertsioak holantxe diño:

*Oles ta oles atean
Nor dabil denpora honetan?
Mutil zoroak alkar hartute
Santa Ageda kantetan*

Beste kantu zahar batzuk be gorde dabez mahatsorri batzuek. Esate baterako, 'Apalazio zalduna' erromantze zaharragaz hasi eta Errege eguneko eske koplakaz segitzen dauana. Apalazio zaldu-

na Bizkaiko beste herri askotan be kantatu izan eben orain gitxira arte.

BEGOÑAKO ANDRA MARI
Begoñan kantaten ziran abestiez gain, badira beste batzuk Begoñako izena han eta hemen barreiatu ebenak. Duda barik, Begoñako Andra Mariri eskainitakoak dira zabalduenak. Egunen batean

Begoñako Ama Birjiñaren euskarazko kantu guztiak batuko balira liburu potoloa egin beharko zan. Gaur egun gehien kantaten dena

*Begoñako Andra Mari
Bizkaiko zaindari
Zure seme maitaleok
Zugana kantari*

izango da baina beste asko dira. BERTONek 1900ko koronazinoa zala eta argitara emondakoak ekarri ebazan orri hauetara. Andra Mariaren omenezko bertso eta olerkien artean herritarren ezpanetatik sortutakoak eta idazle ospetsuen lumetatik isuritakoak dagoz. Besteak beste, Resurrección Maria Azkue. Hona kantu hareetako bat.

*Andra Mariya Begoñakua
Euskal Herriko gloriya
Zure egapean hartu egizu
Euskaldun jente guztiya*


Baina Begoña ez da euskal kantutegian agertzen Ama Birjiñagaitik bakarrik. Badira beste arrazoin batzuk. Esate baterako, kantu batzueri kasu egin ezke-ro, Begoña jendaurrean berba emoteko toki sinboliko gisa hartu eben garai batean. Ikustea besterik ez dago XVIII. mendeko Bizkaiko lapur famatuenetako baten ganeko bertso hau:

*Tretatxok esan ei dau
Begoñe ganien
ez dauela koxuko
Bizkaiko lurrien.*

'Tretatxo'k Begoña ganean egin eban bere promesa, baina alperrik, azkenean harrapatu eben eta. Edozelan be, formula hori XIX. mendearen akabuan sarritan erabili eben Don Karlosen aldekoek.

*Karlosek esan ei dau
Begoña gañean
Laster sartuko dala
Madrilgo kalean.*

Begoñako zin egite horiek herritarren begietara eraginkorrek ziran, duda barik. Baina egia esanda, ez eben zorte handirik ekarri. Don Karlosek, Tretatxok



bezelaxe, ez eban bere guraria bete. Ez zan egundo Madrilan sartu.


Ez da hori karlisten garaiko kantu bakarra Begoñaren aitamena egiten dauana. Lehenengo gerra karlista biztu zanean Bilbo karlisten mende gelditu zan. Halan da guztiz be, hile bi geroago liberalak sartu ziran uri barrura. 1835 urterako, ostera, Zumalakarregiren mutilak Bilboren aurka eraso joteko prest egozan. Bilbo barruko karlistak itxaroten egozan, euren mutilak atakea noiz egingo eben zain. Eta kantu bat asmatu be egin eben, euskeraz eta erderaz. Holan kantetan eben:

*Siempre con esperanzas
Hemen bizi gera:
Cuándo viene esa gente
Bilbao atakatzerá.*

Gero karlisten batailoiak Bilbo aldera etozala kontatzen eben. Eta geroago zerkoa zelan egin be argitzen eben:

*Poniendo los cañones
Begoña partean,
Pondrán el parlamento
Entrega gaitean.
Si no de lo contrario
Gogortzen badira
Los urbanos afligidos
Arkituko dira*

Eta Zumalakarregi ailega zanean kanoiak Begoña partean paratu ebazan eta Begoñan bertan zauritu eben eta... baina hori dana beste baterako itziko dogu.



E G O N E R A Z

www.nontzeberri.com

EUSKAL KULTURGUNE INTERAKTIBO ETA GAZTEA ERATU DU, BESTEAK BESTE, LUTXO EGIA MAHATSORRIAK

The screenshot shows the website's navigation menu with categories: musika, eszena, literatura, bertsotan, ikus-entzun, artea. Below the menu, there are several book recommendations:

- Juan Karlos Merino - KONDOT URRUNAK**: Orain dela lau urte Txalaparta argitaletxeak Literatura izeneko sailean lanak plazaratzeari, liburu erotikoak argitaratzeari ekin zion, eta gaur bederatzigarren alea aurkeztu du Bilboko Likiniano liburu-dendan.
- Xabier Mendiguren - 16 IPUIN AMODIOZKO**: Idazle ez ezik, editore lanetan ezagutu dugu Mendiguren, Elkar argitaletxean. Eta Xabier Mendiguren Elizegik ia liburu guztiak Elkar etxearekin plazaratu dituen arren, idazle honen lehendabizikoa Susa argitaletxeak kaleratu zuen 1986an.
- Igor Estankona - TUNDRA**: Maitasun poemak, poema filosofikoak eta deskriptiboak aurkituko ditu Estankonaren poesiaren bila liburu honetako orrialdeetara hurbilduko duenak.
- Gari Berasaluze - TULIPA GORRIAK**: Gari Berasaluzek idatzitako "Tulipa Gorriak" liburuan jauzika eta saltoka ibiltzen den arrain batekin egingo dugu topo.
- Ana Urkiza - BAZTERREKO AHOTSA**: Emakumetasunaren
- Juan Manuel Ekzebarria - EUSKITZ**

Testua : Iratxe Ruiz

Nontzeberri euskaraz egindako kultura ataria da, eta euskal kulturagune interaktibo eta gaztea izan nahi du, kultura bere osotasunean jaso nahi duena. Web orri berriaren eratzailen artean Lutxo Egia mahatsorria dugu eta aurkezpenean orrialdeari buruzko zehaztasun asko jakinarazi zizkigun.

NONTZEBERRIREN helburu behinena atari aktibo, kreatzaile, dinamiko eta interaktibo izatea dela azaldu zuten sortzaileek. Horretarako hiru ardatz nagusi ditu, hau da, informazioa, sorkuntza eta interaktibitatea, eta bigarrenari eta hirugarrenari eman nahi izan diete garrantzirik handiena. Informazioari dagokionez, kultura ahalik eta zentzu zabalenean jasotzen ahaleginduko direla adierazi zuten, "gurean dauden ekimenei lehentasuna emanez". "Berriak, elkarrizketak, jaialdiak, liburu zein disko berrien aurkezpeneak eta beste bilduko ditugu hemen, baita internautek bidalitako infor-

mazioa ere", gaineratu zuen. Sorkuntzaren atalean webguneak sortzeko parada emango dute. Kantak edo poemak MP3 formatuan, poema bisualak, argazkiak, foto-foroak, animazioa, marrazkiak, diseinua, bertso-jolasak edota jolas literarioak izango dira bertan. "Webgune hau tresna ezin egokiagoa da bertan erabiltzaileak sormen-lanak plazaratu ahal izateko", azaldu zuten. Interaktibitatea saillean erabiltzaileak webgunea manipulatu ahal izango du. Bestalde, Nontzeberri-k aukera emango du internautak harremanetan egon daitezen elkarrekin.

www.nontzeberri.com euskarazko lehen kultura-ataria dugu. Euskal Herriko eta mundu zabaleko kulturara euskaraz hurbiltzeko gaitasuna eskainiko du. "Gure herriaren kulturarekiko harremanak estutzeko eta sendotzeko bidea eskainiko duen webgunea da.

Bestalde, euskara komunikazio hizkuntza da Nontzeberri. Dena dela, gerta liteke inoiz (Kale Sound, Net-Art) erdara ere sartzea", azaldu zuten. Euskaldunak barreiatu dauden tokietaraino iristea da webgune honen beste xede bat. Modu honetan, ahalegin berezi bat egingo dute Euskal Herriatik kanpo sakabanaturik bizi diren euskaldunengana ere heltzeko.

www.nontzeberri.com Suspergintza Elkartearen proiektua da, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzari esker argitaratzen da.

WEBGUNERAEN ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK
Nontzeberri sei atal nagusi dauzka: Literatura, Musika, Artea, Eszena, Bertsotan eta Ikus-entzunezkoak. Atal guztietan informazio eguneratua eskainiko da, besteak beste, albisteak, elkarrizketak, jaialdi eta azoken gaineko berriak edota iritzi artikulua. Atal bakoitzak, dena den, eduki bereziak agertuko ditu.

Literaturan, adibidez, argitaratutako liburuen berri emango da hainbat iritzi jasoz. Antigualekoak izeneko atalean, lagun batek gogoko testu bat ekarri eta haren inguruko hausnarketa egingo du. Gerora, poemak MP3 formatuan sartzeko asmoa ere badutela iragarri zuten.

Musikan, besteak beste, Euskal Herriko hainbat talderen kantak entzun ahal izango dira formato horretan Kale Sound izeneko gunean. Horrez gain, disko berriak ere aurkeztu dira bertan. Artean, Bidaiarte eta Argazkigela azpi-



marratu beharra dago. Batean, arte-galerietako erakusketak on-line egongo dira, eta bestean, euskal argazkilarien argazki-serieak ikusi ahal izango dira.

Bertsotan aukera izango da Plazan lehiatzeko. Gune honetan bertso-jolasak egongo dira. Hitza

Kantu gunean bertsozaleek gogoko bertsoak bidaltzeko parada dute. Azkenik, Ikus-entzun atalean, laster euskarazko laburmetraiak sartzeko asmoa dute. Webgune berriko atalik interesgarrietakoa Zeuk Sortu aldizkaria izan daiteke. Kreatibitate-aldizkaria da, eta internautak bere sormen-lanak plazaratu ahal ditu bertan, hala nola, poema bisualak, argazkiak, diseinua, marrazkiak, bideoa edo ipuinak. Aldizkariak, gai libreak onartzeaz gain, gai bat proposatuko du zenbaki bakoitzean. Bi hilabetean behin zenbaki berria agertuko da, eduki zein diseinu berriekin.

Bidaia izeneko atalean euskaldunok munduan ezagututako tokien berri ematen da. Nontzeberriko internautek 200 edo 300 hitzetan kontatu behar dute zerbait toki horri buruz, beti ere ikuspegi kultural batetik. Argazkiak ere sartuko dira.

EZBAIKA

Foroetan literatura, musika edo beste gai batzuen inguruan eztabaidatzeko beta badago. Zirt edo zart atalean, internautak Nontzeberri egin galderari erantzun beharko dio. Diseinuari dagokionez, Nontzeberri ez da webgune klasiko. Hain zuzen ere, ataria izan arren, haien irudiarekin apurtu gura du. Horrela, Home-an batetik, atalak ez daude ezker-eskuin jarrita eta, bestetik, ez dago ezelango scrolllik. "Nontzeberri webgune alaia da, garbia, kolore askorekin. Diseinu modernoaren bitartez, begietatik ere iritsi nahi da erabiltzaileengana. Diseinua ez da behin-betiko izango, aldian-aldian aldatuko baita", azaldu dute.

ASAPALA
KULTUR ELKARTEA

Bertoko euskaltzaleon topagunea eta elkarte egin guran gabilta

Zeuk ere euskararen ardura badaukazu, batu gurera!

Hemen gagoz:
Iturriaga 55, 1. Ezkerra
Tfnoa. : 944735448
E-posta: asapala@eusnet.org

ERTON DUGU

ERTON DUGU

Igandero Mallonan ekuatortarrak jaigiroan elkartzen dira

MALLONA ETA QUITO



Urrun-urrunetik datoz. Urte baterako batzuek, bakan batzuk agian bost urtez geratu dira, baina hori ez da normalena. Gizon zein emakume. Lan bila, diru bila beren herrira bidaltzeko eta apur bat hobeto bizi ahal izateko. Euren herriko lurralde askotatik datoz baina denak elkar ezagutzen dute. Ekuatortarrak dira eta igandero Mallonan elkartzen dira bazkaltzeko, kirola egiteko eta elkarrekin herri-mina leuntzeko.

Testua: Itxaso Perez
Argazkiak: Iñigo Azkona

Bada Mallonako igogailuaren ondoan garai batean baserri batek betetzen zuen eremua eta orain urte batzuk kirol pista bihurtu zutena. Bertan igandero-igandero Ekuadorretik etorritakoak biltzen dira hitz egiteko, bazkaltzeko agian, eta batez ere lan-asteko kontu guztiak burutik aldentzeko, ahal den neurrian behintzat. Aste osoa ematen dute lanean, astelehenetik larunbat eguerdira arte gehienak, baina bada larunbat arrastian ere lan egiten duenik. Lan egin behar dela diote, baina erritmo horri eutsi ahal izateko burua freskatu behar dutela ere bai.



Denak ez dira bizi Begoña alde honetan. Hobeto esanda, ia inor ere ez. Gehienak Zazpi Kaleetan bizi dira, behintzat Mallonan biltzen direnetatik gehientsuenak bai. Bilboko beste auzoetakoak ere badatoz hona, baina ez dira asko. Gainera, esan digute Arangoitin ere igandero honelakoak egiten dituztela.

EUREN KIROLAK
Arrastiko ordu biak aldera azaltzen dira, eta kirol pistetan futbitoan edo beste kirol batzuetan -boleibolean, esate baterako- aritzen dira. Iluntzen den artean egoten dira, eta iluntzean argiak pizten diren arren, ez dira berandu arte geratzen, hurrengo goizean lanera joan behar direlako.
Eurek boleibolean erabiltzen den antzeko sare bat



ekartzen dute eta saskibaloiko zutoin batetik eta zelaia inguratzen duen hesitik eskegitzen dute. Altuera dezente hartzen du, hiru metro inguru. Hor beren herriko kirol batean arituko dira. Ez nintzen oso ondo enteratu zein izen zuen. Boleibolaren antzekoa da baina futbolaren ezaugarri batzuekin, hau da, ez da baloia eskuz jo behar, buruz eta hankaz baizik, eta bat baten aurka aritzen dira jokariak. Imajinatu ahal duzue zelako buruko minaz amaitu behar duten, sekulako astinduak ematen baitizkiote futboleko baloiari.

Ez dute jantzi berezirik ekartzen. Bakar batek gerriko bat (seguruasko lanean bizkarra mindu zaiolako), niki bat eta beste batek plaieroak aldatzeko ekarri ditu gaur. Ez da gauza handirik behar burua arintzeko, ikusita gainera ez dutela presa handirik jokatzeko orduan. Daukaten "persona lasaien" ospea merezita ote?

HERRIMINA
Jokaldien artean herri minaz hitz egiten digute. Ez zaiela erraza egiten bertan bizi. Gogorra dela bai,

GOÑIAN S.C.L.

LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa

ANDAMIO BARIK

TELEFONOAK:

630 08 09 38

659 45 16 22




Santutxuko poteo gunean



ARROPAK ★
ZILARRA ★
OPARIK ★

Part. Arsuaga SANTUTXU
Tf. & Fax: 473 42 88 • 48004 BILBO
bikoitz@euskalnet.net / www.euskalnet.net/bikoitz



joaten zenaren ustea, baina ustea erdi ustel. Antza, andre hori nahi duenean edota ahal duenean joaten da bazkariarekin, Ekuadorreko ohikoak diren jakiez prestatuta, eta gero, bertan nahi duenak erosten dizkio jatekoak. Jate-txe mugikorra edo. Azaroko domeka hartan ere ez genuen aurkitu. Egia esan, eguraldia ez zen batere goxoa ez bertan bazkaltzeko ezta kirola egiteko ere.

Biltzen direnak ez dira elkarte bateko kide baina

bainà gehien bat familiatik urrun egon behar izateagatik, lanagatik baino. Gehienak hiritik datoz, eta hori dela eta ez zaie hain ezberdina egiten bertoko bizimodua.

Baloi-boolean, bertan boleibol bezala ezagutzen duguna ere aritzen dira, futboleko baloia erabiliz. Eurak "bolea" esaten diote. Hiru hiruren aurka jokatzen dute, eta jokoan ere dirua. Dena dirua dela esan dute, eta arrazoia ez zaie falta, azken finean diru egitera etorriak dira hona.


Ikusle asko dago, denak ekuatortarrak, euritako azpian baten bat eta besteak zuhaitz baten babespean. Joan garen egunean ez zegoen neska edo emakumerik jolasten, baina aritzen dira, ez kirol guztietan, boolean bakarrik baizik. Gainera, badirudi ezkongabeak direla horretan aritzen diren gehienak, ondo ulertu ez dugun arrazoiarengatik. Bai, ordea, ikusle gisa. Baina ez dira asko. Pare batentzat egun hori bera izan zen han agertu ziren lehenengoa.

JATETXE MUGIKORRA

Bageneukan igandero bazkaria gerturatuta andre bat



bada ekuatortarren elkarteren bat Indautxun, eta gainera elkarte horretakoek ohiko bilerak egiteaz gain ekuatortarren arteko futbito txapelketa antolatuta dute Bilbon. Begoñako Andra Mari ikastetxeko zelaian jokatzen dituzte partidu horiek (Indautxun). Mallonan daudenak galdetzen dute ia zelai hau estali zitekeen. Udalari galdetu beharko zaio, orain hauteskundeak hurbil daudela aprobetxatuz.



bertin


Kupoi hau Santutxuko AEKn (Arbidea 21) aurkezten duenari **BI EUROKO DESKONTUA** egingo zaio 'Euskara Mendian' liburua erosterakoan.

BERAZ, 5 EUROTAN SALDUKO ZAIO.

e
l
k
a
r
r
i
z
k
e
t
a

Mikel Zabala

'Matxinadetan begoñarrek protagonismo handia eduki zuten'



Mikel Zabala historialari gaztea bere hirugarren liburuarekin datorkigu oraingoan. Aurrekoan sorginkeria gaian murgildu zen eta oraingoan 'Euskaldunak matxino' bere lanean matxinadak zertan ziren azaltzeko eta zabaltzeko ahalegina egin du. Gaiak argitaletxeak plazaratutako lan horren ildotik historialari santutxuarrak gauza asko kontatu dizkigu. Azken finean, matxinadetan mahatsorriak nabarmen-nabarmen ibiltzen ziren eta matxinadak ez dira oraindik ere agortu...

Testua: *Hektor Ortega*
Argazkiak: *Iñigo Azkona*

Sorginkerietatik matxinadetara pasatu zara. Zer dela eta aldaketa hori?

Batez ere aurreko bost-sei urtetan landu dudan gaia horixe izan dela. Jakina, hori zen nire tesiko gaia. Nire tesia Gatzaren Mutinaren inguruan (1631-1634) izan da. Baina bide batez eskatu zidaten gainerako guztiez ere idaztea eta horrelaxe egin dut.



Eta idatzi duzuna, 'Euskaldunok Matxino' titulupean, dibulgazio liburua izan da...

Bai. Bertan ikuspegi orokorra, matxinada guztien irakurketa banan-banan eta horrez gain baita beste hainbat aurkakotasun mota sartu ditut, uste dudalako neurri batean zer ikusia badaukatela.

Matxinada. Berba gutxitan azalduko duzu zer izan zen?

Uf! Laburbiltzea zaila da. Hainbeste landutako gaia izanik... Bueno, oso labur esan behar izatekotan, garai batean

Bai. Argi dago protagonismo handia hartzen zuela. Baina eguneroko zereginetan protagonismo ez zuenik ere ez nuke esango. Nik ez dut goraiatu nahi historia mitikorik baina bai neurri batean historiografiaren ikuspuntu argi batetik egindako kritikak ere bere neurria eduki behar dute. Egia da beheko taldeek ez zituztela kargu publiko handiak hartzen baina egia da ere Batzar Nagusietara joaterik bazutela eta, ondorioz, zertxobait esateko eta gauza batzuk aurrera ateratzeko aukera zeukatela. Hori batzuetan ezkututzen da edo gutxiesten da esanez betiko historia mitikoa dela baina



aurkakotasun mota batzuk biltzen dituen kontzeptua da. Aurkakotasunak orokorrean izan daitezke, modu simple eta errazean esanda: alde batetik, menpeko taldeen amorruta krisialdiko garai batean. Bestetik, orokorrean erakunde publikoetan izandako aurkakotasunak foruzalatasunaren eta haren interpretazioaren inguruan. Eta azkenik, euskal lurraldeen eta Madrilaren arteko aurrez-aurreko tirabirak. Gutxi gorabehera horiek dira matxinadetako hiru mailak eta, hein handi batean, guztietan agertzen dira.

Beraz, matxinadetan herri xeheak eguneroko jardunean galarazita zeukan protagonismoa beretzat hartzen zuen...

nire ustez muturreko ikuspegi batzuk faltsuak ziren bezalaxe, beste puntakoak ere erratuta dabiltza.

Zure liburua egiteko esperientziaren arabera, matxinaden gainean alderdi garrantzitsurik gelditzen da oraindik argitzeko?

Egia esan, atalik zaratsuenak nahiko landuta daude. Gertatzen dena zera da, beste mota bateko aurkakotasunak, egunerokoak, badirela eta horiek, ez direlako hain argi nabaritzen, ezkutuago egon dira orain arte.

Euskal Herri osoko fenomeno da matxinada?

Bai. Orokorrean bai. Baina batez ere kostaldeko herrial-

deetakoak, Lapurdi, Gipuzkoa eta Bizkaia. Zergatik? Gizarte egitura zehatz bat dago kostaldean eta beste bat barruan. Barrualdeko gizarteetan, Nafarroako erresuman edo Araban, bestelako gizarte antolaketa dago. Esate baterako ez dago kaperatasun orokorrik, kostaldean ez bezala. Eta fenomeno horrek asko baldintzatzen du egoera orokorra.

Eta badago herri bereziki matxinada-zalerik, ezta?

Ja, ja. Bai. Orokorrean askotan matxinatzen dira hiribildu nagusiak eta baita inguruko herriak, elizate edo unibertsitateak. Hauek protagonismo handia daukate arrazoi bat dela medio: matxinadetan azaltzen den aurkakotasun nagusietako bat hiri eta nekazari inguruen arteko tirabira da. Jakina, tirabira hori gogorrago eta zuzenago izaten da hiribilduen eta euren ondo-ondoko herri nekazarien artean. Besteak beste, Begoñako elizateak berak protagonismo handia eduki zuen. Zergatik? Begoñako lur eta base-ri askotako jabe handi zenbait Bilbon bizi zirelako. Begoñak, beraz, Abandok eta Deustuak bezala, protagonismo handia eduki zuen. Gauza bera Azpeitia eta Azkoitia ingurunean eta, orokorrean, nekazari herrietan.

Orduan liburua egiteko eskatu dizute zure ikergaia izateaz gain mahatsorria zarelako...

Ja, ja. Ez dakit Alizia Sturtze editoreak horren berri ba ete zeukan. Istorioa, hala ere, bitxia da. Haren semea Kuban

ezagutu nuen. Han haren amaren liburu bat irakurtzen nengoela esan zidan: 'Liburu hori idatzi duena nire ama da'. Eta neuk, jakina, 'bai zera' erantzun nion. Eta egia zen.

Matxinada berba XVII-XVIII mendeetatik dator baina gaur egun sarritan entzuten dugu...

Bai. Aurkakotasun mota batek gaur egun ere irauten du. Jakina, testu-ingurua nabarmen aldatuta dago orduetik hona baina neurri batean aurkakotasun horrek, aldaketak eta jarraikortasunak kontuan hartuta, iraun du.

Euskaraz artikulua idatzita zaude. Liburua, oster, hauxe duzu lehenengo euskara hutsez. Pozik?

Bai. Esperientzia polita izan da. Jakina, nahiago dut euskaraz idaztea baina argitaratzaileak agintzen du eta eskatzen baldin badu gaztelera idaztea -eta zenbait kasutan halaxe izaten da- erdaraz egiten dut.

Euskaraz idatzitako historia liburuak oso urriak izan dira. Azken urteotan, ordea, badirudi joera aldatzen hasi dela...

Bai, bai. Begi-bistakoa da, ze beste zenbait jakintza arlotan ezer-gutxi dago euskaraz idatzita. Ez diot historiografian euskaraz asko dagoenik, baina beste batzuen aldean ondo gaude. Jakina, gauzak nabarmen aldatu beharko dira baina beste arloekin konparatuta...

Historialaria zara, Mikel. Azkenaldion historialari batzuek protagonismo itzela hartu dute aktualitate politikoan. Zelan ikusten duzu fenomeno hori?

Fenomeno hori ez da berria. Historia erraz manipulatu da. Historiari buruz denok hitz egiten dugu, dakigunok eta ez dakigunok eta dakigunari buruz eta ez dakigunari buruz. Zenbait portaera justifikatzeko Historiari heldu behar zaionez gero, oso tresna egokia da holako azpijokotarako. Botereek beti bultzatu dituzte batzuek beren interesen alde idatz dezaten. Hori ez da berria. Duela 200 urte Godoyren garaian gertatu zena gaur egun errepikatzen ari da. Amorrarazten nauena da ikustea gaur egun ere jende askok zelan sinisten dituen zenbait kontu. Baina manipulazioa egitearena ez da harrigarria. Bakarrik, espero duzu jendeak beste erantzun bat emango liokeela, gaur egun ematen duelako gizartea helduagoa dela. Baina egia esan, ez da horrela izaten.

Hainbeste matxinadaz idatzi eta gero, zein duzu gustukoaren?

Noski, sakon landu dudak bakarrik, Gatzaren Estankoen Mutina. Bi arrazoiengatik. Batetik, gutxien landutako garaia delako eta bestetik, sei urte eman ditudalako berarekin...

TRUK LIBURU ETA DISKAK	
ARIMA BELTZA	PANTXOA TA PEIO
 BLUES SUSTRARIA 16,00 €	 LAPURTA KOBLARIAK 17,50 €
TXAPELPUNK	UGA
 BLA, BLA, BLA, STOP 14,90 €	 BEREZIANAK 17,40 €
LOS NUEVOS PERROS	IPUIN BATEAN BEZALA
 El campo periodístico, es hoy en día, una porción de tierra quemada, donde la mentira y la manipulación de emisores y receptores configuran todo un modo de vida. Este libro desmonta el mito del periodismo objetivo, del periodista, pretendidamente, "libre de sus ideas, actos y palabras" SERGE HALIMI TXALAPARTA 13,00 €	 Maitasunaren bizi-modu alternatibo batzen atzetik joan zen Sara, Granadako Alpujarrak. Urte ezki hartzen ostean, zutimara iritsi eta drogaren zutimara erori zen. Ander, bertiz, gutxi etsia dago bizitza sentimentalki dagionez. Eta, horra non, porrotaren hautzetatik, amodioa sortzen da. JOAN MARIA IRIGOIEN ELKAR 15,50 €
LOS CAMINOS PERDIDOS DE AFRICA	HARRY POTTER ETA SUAREN KALIZA
 Con "Los caminos perdidos de Africa", Javier Reverte, nos traslada a Etiopia, Sudán y Egipto. Como es habitual en sus textos, el escritor nos hace caminar a su lado con naturalidad, ternura, curiosidad, pasión y una honda comprensión de lo humano. JAVIER REVERTE ARETE 20,50 €	 Harry Potterren laugarren urtea da Hogwartsen. Harryk hamalau urte ditu dagoeneko, eta berari mago gazte arrunt bat izatea gustatuko litzaioke, baina, uda ondoren eskolara etzanean, herebiziko ezustekoa izango du, eta erronka izugarriei aurre egin beharko die. J.K. ROWLING ELKAR - SALAMANDRA 16,50 €
 AUKERATU ZURE LIBURUA, DEI JEZAGUZU ETA EGUN GUTXI BARRU ZURE ETXEAN	doxka!
TRUK	TRUK
LIBURUDENDAKO PREZIOAN ETA BIDALKETA GASTURIK GABE	902 45 12 12 IRUÑEA • EUSKAL HERRIA

Eta ba al dago pertsoniarik bereziki interesatu zaituena....

Bai. Oso pertsonaia erakargarria izan da niretzat Morga lizentziatua. Berau izan zen Gatzaren Estankoaren Mutinaren buruzagietako bat eta zenbait urtez galduta daukat. Ez dakit zehazki nondik datorren, hutsuneak daude niretzat bere biografian eta matxinadan badirudi oso eginkizun garrantzitsua eduki zuela. Baina benetan zer pentsatzen zuen, izaera... ihes egiten dit horrek. Beste pertsonaia batzuenak badakizkigu baina Morga lizentziatua oso ilun agertzen zaigu... Hemen ondoan, Larreagaburuko urkamendian, hil zuten.

Proiektu berririk darabilzu esku artean? Bai. Gelditu ez naiz inoiz gelditu. Mutinaren gaiak oraindik ere jokoa eman dezake. Eta gero ez naiz hasiko matxinadak asmatzen baina badaude beste motako gizarte aurkakotasunak eta horiek inbiliko naiz. Badago zer ikertua XVI-XVII. mendeetan, batez ere instituzioetan egon daitezkeen aurkakotasunak.

BEDERATZI GALDERA LABUR

- Pelikula bat
"El jovencito Frankenstein".
- Kantu bat
Kasu honetarako egokia da 'Matalaz'.
- Musika talde bat
Garai batean markatu ninduelako, "Negu Gorriak".
- Janari bat
Xerra.
- Liburu bat
Marc Bloch-en "Introducción a la Historia".
- Toki bat
Lekeitio.
- Izen bat
Markel, hurrengo loba izango delako.
- Mendia ala hondartza
Mendia.
- Amets bat
Gidoian sartzen da, Euskal Herria libre izatea.


Zer egin beharko litzateke "Prestige"-ren "marea beltzarekin"?




EGUZKINE (MATIKO)
LEHENENGO, KENDU, ETA GERO, MADRILERA EROAN, BAINA MONCLOARA. BERTAN UTZI ETA LISTO!



ARANTZA (OTXARKOAGA)
TXARTO EGIN DUTE DANA. LEHENENGO ONTZIA EKARRI, GERO ERAMAN, BERRIZ EKARRI... NIRE USTEZ, PORTU BATETARA EROAN BEHAR ZUTEN ETA BERTAN PETROLEOA ATERA. AGINTARIEK EZ DUTE EZER ERAGINKORRIK EGIN ETA GAINERA EZ DIETE ADITUEI KASURIK EGIN.




ANA (ZURBARAN)
OSO KONPLIKATUA DA. AURRETIK PENTSATUTA EDUKI BEHARKO LUKETE, ARAZOA SORTU BAINO LEHEN.



MARKOS (OTXARKOAGA)
NAHIKO BALUTE, DIRUAZ HORTIK ATERA ETA KENDU AHALKO LUKETE. BAINA EZ OMEN DUTE NAHI. POLITIKOEN SOLDATAZ ORDAINDU BEHARKO LITZATEKE.



MONTXO (OTXARKOAGA)
ARRANTZA ARLOA (ARRANTZALEAK) ERREKONBERTITU BEHARKO LITZATEKE ETA "MARIA" LANDATZEN HASI. GAINERA, HONEK EZ DU KONTAMINATZEN.



JON (OTXARKOAGA)
FRAGAK ETA XUNTAK ANTOLATU BEHARKO DUTE PROZESIO BAT SANTIAGORA OTOIZ EGITEKO, ONTZIA LEHERTU EZ DADIN.



KRIS (OTXARKOAGA)
ASPIRADORE BATEN BIDEZ ZERURANTZ BIDA-LI ETA HORTIK HEGAZKINEZ EDO, MADRILEKO POLITIKARI, MILITAR ETA KLEROEN ETXEETARA BOTA. ARGAZKI BAT ATERA ETA MUNDUAN ZEHAR ARGITARATU ONDOKO LELOAZ: "HAUEK KAKAZ BETERIK BIZI NAHI DUTE."

AKARKAKA

BERTAN

Txurdinagako parkea, Hego Euskal Herriko onena

Eroskiren 'Consumer' aldizkariak berdeguneen kalitatea, hornikuntza eta zerbitzuak aztertu ditu

Txurdinagako 'Europa' parkea Hego Euskal Herriko berdegunerik onena dela iritzi dio 'Consumer' aldizkariak. Eroski taldearen argitalpenak Lau herrialdeetako hiriburuetako hiru-na parke hartu eta aztertu ditu. Azterketa horretan Estatu espainoleko beste hainbat hiriburu ere sartu ditu eta Txurdinagako lehenengo artean agertzen da.


Gutzira 'Consumer' aldizkariako teknikariek hamabi hiritako 36 berdegune handi bisitatu zituzten urriaren lehenengo eta bigarren asteetan. Parkeen aukeraketa tokian tokiko udaleko arduradunen esku utzi zuten. Berdegunera joanda, teknikariek landaretzaren kalitatea -zuhaitzak, belarra, loreak, heskaiak, zainketa eta garbitasuna-, zerbitzuak, ekipamenduak eta segurtasuna neurtu zuten. Gainera, parke bakoitzean hogeitabi bisitariri inkesta bana egin zioten bertako segurtasunaren gaineko iritzia jasotzeko.

Txurdinagako parkeari 'Consumer'eko teknikariek 'oso ongi' balorazio orokorra eman zioten. Notarik altuena landaretzari jarri zioten, atal horretan 'bikain' deklaratu zuten eta. Banan-banan hartuta, zuhaitzei 'oso ongi' eman zieten, eta beste horrenbeste loreei. Heskaiak 'ongi' lortu zuten eta belarrak 'bikain'.

Zerbitzu eta ekipamenduei dagokienez, teknikariek egun osoz irekita egotea 'oso ongi' baloratu zuten, sastarrontzien egoera 'bikaina', eta jarlekuek zein elbarrientzako erraztasunek 'oso ongi' bana lortu zuten. Komun publikoek eta umeen guneak 'ongi' bana erdietsi zuten. Bidegorri (bizikletentzako bide) ezak ekarri zion Txurdinagako parkeari 'gaizki' nota bakarria atal honetan.

Nota makalagoak jaso zituen parkeak beste zerbitzu batzuetan. Ongi daude kirolguneak, gune estaliak eta telefono kabinak. Onargarriak dira iturriak. Eta 'oso gaizki' kalifikazioa erantsi zieten txakurrak eta artelanak atalei. Hala ere, zerbitzu eta ekipamenduen atala, orokorrean, 'oso ongi' baloratu zuten.

Segurtasunaren atalean balorazio orokorra 'oso ongi' izan zen, nahiz eta segurtasun langileak ez egon. Izan ere horixe da 'Consumer'eko teknikariek topatu duten akatsik handiena Bilbon, parkeetan ez baitago segurtasun arloko enplegatuturik. Segurtasuneari, trafikoa, arriskuak eta hesietan, oster, Txurdinagako parkeak oso nota onak lortu zituen.



Txurdinagako Europa Parkea

ETXEBARRIA PARKEA

Bilboko beste parke biak Doña Casildarena eta Etxebarria dira. Azken hori, jakina, Begoñan. Etxebarria 'ongi' kalifikazio orokorra lortu zuen. Landaretzan dauka zulorik handiena, adituek atal horri 'onargarria' bakarrik iritzi zioten eta. Zuhaitzek eta belarrak 'ongi' merezi zuten baina loreak eta heskaiak 'oso gaizki' ei daude.

Zerbitzuetan, ordea, Etxebarria parkeak 'oso ongi' bat erdietsi zuen. Umeen guneak, txakurren guneak, gune estali eta bidegorri falta izan ziren notarik baxuenak ekarri zituztenak. Artelanek, sastarrontziek, elbarrientzako erraztasunek eta komun publikoek kalifikazio onak lortu zituzten.

Azkenik, segurtasunaren atalean, Etxebarria parkeak nota txarra erdietsi zuen segurtasun langilerik ez egoteagatik eta arriskuengatik. Segurtasuna, hala ere, 'bikain' batekin sailkatu zuten teknikariek.

Orokorrean, Bilboko parkeei 'oso ongi' nota jarri zieten 'Consumer' aldizkariako teknikariek.

Zumalakarregin semaforo gehiago jarriko dituzte

Auzokoek trafikoa eten dute kalea gurutzatzerakoan segurtasun gehiago eskatzeko

Zumalakarregi etorbidean semaforo gehiago jarriko ditu Bilboko Udalak urte akabu baino lehen. Udal arduradunek auzokoek protestaldiak ikusitakoan hartu dituzte erabakia. Izan ere, asko dira semafo-

roak jarri zirenetik bertan gertatutako istripuak. Inguru hori zeharo 'hiri barrukoa' dela jakin behar dute auto gidariek.

Urte luzeetan Zumalakarregi eta Maurice Ravel etorbideak hiri barruko kaleak baino autobidea izan dira. Abiadura handiko autobideak, zehatzago esanda. Horregatik, inor ez da harritu Etxebarria parkearen ondoan eta Uribarrin semaforoak jarritakoan auto istripuak nabarmen handiagotu direnean. Auto gidari askorentzat oraindik ere autobidea da hori.

Hala ere, arazoa larriagotu egin da azken hilabeteetan istripuak hildakoak eragin dituztelako. Azkena 75 urteko andre bat izan da. Auto batek kolpatu zuen eta, hilabetez koman egon ondoren, azkenean hil zen.

Handik gutxira, azaroaren 8an, inguruetako bizilagunek trafiko etenaldia egin zuten arratsaldeko zazpietan. Ordu laurdenez Etxebarria parkearen ondoko semaforo bien parean errepidera irten eta trafikoa geldiarazi zuten. Euren protestak Bilboko Udalaren erantzun azkarra eragin zuten.

SEMAFORO BAT LORURIN

Izan ere, egun hartan bertan Bilboko Udaleko Zirkulazio sailak hartu beharreko neurriak jakinarazi zituen. Semaforo eta oinezkoen pasabide berri bi jarriko dituzte 'urtea amaitu baino lehen'. Helburua, jakina, Maurice Ravel eta Zumalakarregi etorbideek jasaten duten trafiko jario azkarra mantsotzea.

Lehenengo semaforoa Loruri (Ciudad Jardin) eta Mirador de Bilbao etxe-multzoaren aurrean jarriko dute. Bien arteko komunikazioa erraztuko du pasabide berriak eta errepidearen bestaldeko autobus geltokiarekin lotuko ditu.

Gainera, Maurice Ravel etorbideetik etorriko diren auto gidariek abisua emango duen semaforo bat ikusiko dute lehenengo.



BESTEIA ZABALBIDEN

Bigarren semaforoa Zumalakarregi eta Zabalbide kaleak elkartzen diren tokian bertan ipiniko dute. Horrela, Santutxu eta Txurdinaga auzoen arteko komunikazioa nabarmen erraztuko dute. Izan ere, gaur egun lur azpiko pasabide bat baino ez dago.

Semaforo hori ipintzeko Bilboko Udalak beste batzuk jarri beharko ditu inguru horretan trafikoa errazteko. Izan ere, Hortxe Santutxurako irteera eta sarbide bana dago, eta beste horrenbeste Txurdinagara.

Behin semaforo hauek ipinita, zazpi izango dira Salbe zubitik Ibarsusirako zatian jarritako semaforak. Bi berriez gain, Uribarrin beste bi daude, Panera etxeen ondoan bat -Udaletxetik datozen autoei bidea emateko- eta Etxebarria parkearen ondoan beste bi. Oinezkoek bost tokitan zeharkatuko dute errepidea.

Garraioak



Deitu:
Jabi: 607 43 17 91
Txema: 607 19 68 33

Sugea taberna



Iturriaga, 92 Santutxu

BASTERTXU



TABERNA
Ricardo Bastida plaza

E R R I K A R I A K

E R R I K A R I A K


Udal Etxebizitzak elkarteak 3.100 pisu saltzeko prozesua abian jarri du

Besteak beste Santutxu, Matiko, Sorkunde eta Solokoetxeko udal pisuak saldu gura dituzte

Hainbat hilabetez prozesua geldirik egon ostean, Bilboko Udalak bultzada eman dio 3.100 udal etxebizitzaren salmenta prozesuari. Udal arduradunek saldu nahi dituzten etxeen artean Matiko, Santutxu, Sorkunde eta Solokoetxe

txe kalekoak daude. Gainera, Otxarkoagan ere beste 1.300 pisu salgai jarri gura dituzte. Kritikoek salatu dutenez, Bilboko Udalak ez dauka oraindik salmenten diruaz etxebizitza gehiago egiteko planik, alokairuan emateko gero.

Guztira Bilboko Udalak Cortes, Matiko, Unamuno plaza, San Pablo mendia, Pedro Astigarraga, San Adrian, San Frantzisko, Santutxu, Solokoetxe, Sorkunde, Torremadriaga, Torre Urizar, Urazurrutia eta Zankoetako etxeak saldu nahi ditu. Salmenta gaur egungo maizterrei egin gura die Udalak, "beti ere eurek hala eskatzen badute".



Guztira 3.103 pisu jarriko dituzte salgai.

Operazio honetan ez dira sartuko Eusko Jaurlaritzak alokairurako erositakoak. Alokairuan emateko hartutako bloke horiek dira Arbide, Belostikale, Bentazarra, Cortes, Gardeazabal, Julian Gaiarre, Peñascal, San Frantzisko, Urazurrutia, Zorrotzaganeta eta Zuatzu. Gainera, eskaria egin ahal izateko, maizterrak bost urte baino gehiago behar dute etxe horretan.

Udal arduradunek oso argi esan dute prozesu konplexua izango dela. Izan ere, etxebizitza bakoitzak dagokion prezioa hartuko du. Horrek, jakina, ikerketa sakonak eskatuko ditu. Edozelan be, Bilboko Udaleko abokatuek esan dutenez, "herri ondasunak saltzeko operazio honetan herri interesa izan behar da nagusi, aukerako prezioak edo prezio politikoak zeharo baztertuaz".

Alde horretatik ikusita, beraz, etxebizitza horien prezioak merkatuan daudenetatik ahalik eta hurbilen egongo direla esan liteke. Orubeen balioaren prezioa eten barik gorantz doala kontuan hartuta, prezioak ere horrelaxe egin behar dute.

Guztira, Bilboko Udalaren iritziz operazio honen ondorioz 60 eta 72 milioi euro bitarteko dirutza sartuko da udal diru-kutxetan. Bestalde, Otxarkoagan ere badaukate beste 1.300 etxebizitza saltzeko asmoa. Salmenta horrek ere sos potoloak emango dizkio Udal Etxebizitzak elkarteari.

INBERTSIOA ZALANTZAN

Izan ere, hortixe dator, hain zuzen, operazio honek biztu duen kritikarik handiena. Salmentak egindakoa Bilboko Udalak bere ondasunen zati handi bat galduko du, gizartearen beharrian bati erantzuteko bitartekorik gabe geldituko da eta ez da agertzen inondik alokairuan emateko etxebizitza berriak egiteko edo lortzeko plangintzarik.

Horregatik, hainbat ahots altxatu da esanez salmenta operazioaren etekinak artez-arte etxebizitza gehiago lortzera bideratu behar dituztela. Optimistek ere ez du zalantzan ipiniko gaur egun etxebizitzarena hainbat bilbotarren arazorik larriena dela.

Beste arrisku bat espekulazioarena izan daiteke. Tentazio hori saihesteko, otsailean Udal Etxebizitzak elkarteko kontseiluak zera erabaki zuen: saldatuko etxebizitza guztiak berriz ere erosteko eskubidea gortetzea hurrengo hamar urteetan.

Otxarkoagan egin zen prozesu honetako lehenengo atala. Auzo horretan etxeen %58,6 saldu zen. Operaziotik kanpo 1.329 maizter gelditu zen, beste etxebizitza baten jabe zirelako.

Iturribide kalean etxe bat bota dute plaza bat zabaltzeko

Bilboko Udalak berak zaharberritu zuen etxea eraitsi du oraingoan

Bilboko Udalak Iturribide kaleko lehenengo zenbakiko etxea eraitsi du. Operazio honen helburua ondo-ondoren dagoen plaza, Tomas Meabe plaza hain zuzen, zabalago egitea da. Horrela, behin beharrak amaituta Tomas Meabe plaza mila metro karratuko azalera edukiko du. Operaziohonekin lotuta, 'Burreria' alondegia zaharrekotatu eta horrela ia kilometro karratu bateko azalera lortuko du.

Iturribide kaleko lehenengo zenbakiko etxea azaroaren amaieran hasi ziren eraisten. Hirigintza saileko jardun honek 150.000 euro (25 milioi pezeta) beharko ditu. 2003ko martxorako amaituko dutela jakinarazi du Bilboko Udalak. Behin lanok amaituta berrehun metro karratu libre geldituko dira. Orube hori Tomas Meabe plazari gehituko zaio eta horrela ia kilometro karratu bateko azalera lortuko du.

Operazio honekin lotuta Tomas Meabe plaza atonduko dute eta 2003ko uztaileko amaizuna egongo da. Orduan Zazpi Kaleek eta Askaoiturri auzoek plaza polit berri bat edukiko dute etxe ondoan erabilgarri. Plaza egokitzeko 240.000 euro gastatuko ditu Bilboko Udalak, 40 milioi pezeta alegia.

ALONDEGI ZAHARRA
Gainera, operazio honekin estu lotuta dator Alondegia zaharrena itxura apur bat aldatzeko asmoa. Izan ere, 2003ko urtarriletik martxora bitartean Iturribideko kaleko lehenengo zenbakiko etxearen eta Aste Santuko Pausoen Museoaren tarteko horma egokitu dute. Jakina denez, Aste Santuko Pausoen Museo Alondegia Zaharrean kokatu zuten. Orain etxe horretako mendebaldeko fatxada zaharberritu gura dute.

Horretarako, etxebizitzak egitean hormaren ostean estalita utzi zuten leiho bi zabaldu eta beste bi berri irekiko dituzte. Iturribideko Alondegia zaharrekotatu mendebaldeko horma txukuntzeko lanek 30.000 euroko inbertsioa eskatuko dute.

Virginia Acebesen bortxaketa eta hilketagatik hogeita hamar urteko kartzela zigorra

Azaroaren 18an Bilboko Probintzi Auzitegiak 30 urteko kartzela zigorra ezarri zion Virginia Acebes atxuritar gaztea bortxatu eta hil zuen Luis Gabriel Muñoz Izquierdori. Epailak ontzat eman zuten akusatua 2000ko azaroaren Ertzaintzaren aurrean egindako deklarazioa.

Virginia Acebes ikasle gaztea 1999ko azaroaren 21eko goizaldeko hiruretan desagertu zen, Santutxu kaletik bakarrik joiala. Sententziak dienez, orduantxe Luis Gabriel Muñoz Izquierdorekin topatu zen. Honek aitza batez zema eginaz bere autoan sarrarazi zuen. Artxandara eraman zuen eta bertan bortxatu eta hil egin zuen.

Neskatilaren desagertzea astindu ederra eman zion Bilbo osoko gizarteari. Artxandan bilaketa lanak areagotu ziren hari eta nesken gorpua topatu zen arte. Atxurik eta Sarririkoko unibertsitatean omenaldi eta hileta-elizkizun jende-tsuak egin zizkioten.

Hala ere, urtebete joan zen hiltzailea atxilotu zuten arte. Izan ere, gazte horrek beste bahiketa bat egiten ahalegindu zen Iturribide kale inguruan eta kasu honetan huts egin zuen. Gainera, hortik etorri zen bere atxilotzea. Polizietean Virginia Acebesen bortxaketaren eta hilketaren egilea zela aitortu zuen baita hainbat xehetasun eskaini ere. Epailketan, osteratzen egin zuen eta errugabea zela aldarrikatu zuen. Baina bere testigantza gain, DNA frogak eta bere txakurraren ileek salatu zuten.

OTXARKOAGAKO LIBURUTEGI ZAHARBERRITUA.

Azaroaren 18an inauguratu zuten Otxarkoagako udal liburutegi zaharberritua. Hamaika mila ale daude bere apalategietan eta altzari zein ordenagailu berriak paratu dituzte. Gainera, langile bi daude orain. Astebetez hainbat ekitaldi egin dira inaugurazioa ospatzeko, besteak beste BERTONeko Benito Fizen 'Otxarkoaga, Begoñako euskararen gordailu' hitzaldia. Liburutegia Otxarkoagako auzo-etxean dago.



Kirolak

Punta-puntako kirol markak

Karmelo 9 Santutxu 94 412 37 01

Ikastolak proposamena aztertu eta Gabonak baino lehen erantzungo du

EUSKO JAURLARITZAK LARREAGABURU GAINA PROPOSATU DU KARMELO IKASTOLA BERRIRAKO



Irudi hauetan Karmelo ikastolak azaroaren 8an eginiko kalejira.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak Larreagaburu (Mina del Morro) mendi ganean eraiki nahi du Karmelo ikastola berria. Eraikina txukuna eta ondo hornitua izango litzateke 'zentro erreferentea' izan dadin. Proposamena azaroaren akabuan jakinarazi zioten Hezkuntza saileko arduradunek ikastolari. Azaroaren 27an bertan ikastolak lehenengo batzar informetiboa egin zuen. Erabakia, proposamena sakon aztertutakoan, Gabonak baino lehen.

Testua: **H. O.** / Argazkiak: **Iñigo Azkona**

Karmelo ikastolak eraikin berria edukiko du. Hortaz ez dago dudarik. Kontua da, gaur egun, non. Ikastolako batzarrak Hermanitas de los Pobresen ondoko orubean nahi zuen. Ahalegin itzelak eginik ere, Bilboko Udalaren jarrera orain arte ez da milimetro bakar bat ere mugitu: ibarbidetako plangintza eginda dago eta ez dago Karmelo ikastola berriarentzat tokirik.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailak, bere aldetik, azaroan jakinarazi zuen bere alternatiba. Lehen aldiz, ongi jorrotutako proiektua aurkeztu zioten ikastolari. Azaroaren bigarren hamabostaldiko egun batez Larreagaburu mendi gainera igo ziren eta multimedia sistema baten laguntzaz euren

proposamena zertan den azaldu zieten ikastolako arduradunei.

'ZENTRO ERREFERENTEA'

Hezkuntza sailaren proposamenak 'zentro erreferente' sortu gura du Larreagaburur. Eraikin berriak hiru solairu edukiko ditu eta Bilboko parkerik handienaren ondoan egongo da, lakuari begira. Kiroldegi estalia ere edukiko du eta kanpoko itxura, ederra. Proiektua Eusko Jaurlaritzaren arkitekto gazte batek egin du. Gainera, ikastolari 0 eta 12 urte bitarteko etapa agindu zioten.

Abantaila guzti horiek nabarmenak izanik ere, zailtasu-



nak ere baditu. Esate baterako, mendi puntan egoteagatik desnibelak handiak izango dira. Hain handiak ezen pasabideak beharko diren edota sarbideetako bat igogailua izan daitekeen.

Baina arazorik handiena kokapena bera da, tokia. Larreagaburu gaina Santutxutik kanpo dago, urrutian. Egia da inguruetan etxe asko altxatzen ari direna eta laster bertan milaka persona biziko direna. Baina Santutxugazko loturak arinduko ote diren zalantza hori bertan dago.

ERANTZUNAREN ZAIN

Egunokaz ikastola eztabaida betean dabil. Erabaki larria hartu behar dute, Karmelo ikastolaren etorkizuna jokoan dago eta. Batetik, Hermanitas de los Pobreseko bidea, ezusteko galantik ezean, itxita dagoela dirudi. Bilboko Udaleko arduradunek ezetz erantzun dute toki askotatik, baita Hezkuntzatik ere, egin zaizkien eskaera guztien aurrean. Gaine-

ra, urtarrilean bertan eraikitze lanak hasiko dira eta oso denbora gutxi gelditzen da.

Bestetik, Hezkuntza sailaren proposamena dago, erantzun baten zain, bere abantailekin eta bere eragozpenekin. Eraikin polit bat behar beste hornituta baina auzotik kanpo toki zail batean. Ikastolak batzarrak egiten hasi da eta abenduan bertan erabaki bat hartuko du, Hezkuntza sailaren proposamena sakon aztertu eta gero.



KALEJIRAN

Bitartean, azaroaren 8an Karmelo ikastolako ikasle, guraso eta langile talde bat kalejiran joan zen ikastolatik Karmelo plazaraino. Bertan, ikasleen lanak jarri zituzten ikusgai. Musika ere ez zen falta. Helburua, Karmelo ikastola berria Santutxun egon dadila.

TRUK EUSKARAZ JOLAS ETA IKASI

<p>AITOR IKASTOLAN</p>  <p>UMEENTZAKO ORDENAGAILUA EUSKARAZ • INGELESEZ • GAZTELANIAZ</p> <ul style="list-style-type: none"> • 78 jarduera euskaraz, gaztelerez eta ingelesez • Hiztegia, jolasak, marrazkiak, grafikoak,... • Pantaila, teklatura eta benetazko sagua • Pedagogo eta hezitzaile adituek garatua. <p style="text-align: right; font-weight: bold;">6-9 URTE 59,90 €</p>	<p>AITOR SORTZAILE</p>  <ul style="list-style-type: none"> • Idazkeraren eta irakurketaren sortzaile • Kultura eta irakurketa • Edukirik handiena ahozko euskaraz eta gaztelaniaz • Sagu profesionala, benetazko teklatura,... • 55 jarduera euskaraz eta gaztelaniaz • Jokoak eta orduak • Musika eta marrazketa <p style="text-align: right; font-weight: bold;">4,5 6,5 URTE 59,90 €</p>
--	--

EUSKARAZ JOLAS ETA IKASI

TRUK

902 45 12 12

IRUÑEA • EUSKAL HERRIA

DEI JEZAGUZU ETA EGUN GUTXI BARRU ZURE ETXEAN

3,67 € BIDALKETA GASTUAK

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA bertan

Justiegune, Euskalgune, Aitziber Inuria, Iduna Taldea
Urtzi Urrutikoetxea
"Mugitzen zela gurean jarritan dituz konstatzioak"
Urtziaren hamasei urtekin

Miren Agur Meabe
"Euskal literaturan aniztasuna eta maila altua dago"

Eladio Montiel, Otxarkoagako abesbatza zuzendaria

Mikel Alvarez, mahatsorri bat Ezevesteko tontorrean

Imanol Agirre: "Batu nazionala izapela jarriko esperantzarekin"

DOHAIN

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA hartu bertan etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertan aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena:

Abizenak:

Kalea: Zenbakia: Solairua:

Herria: Herrialdea: Posta Kodea:

Telefonoa:

Bankua:

Kontu zenbakia (20 digitu):

DOHAIN **DOHAIN**

Sinadura


BALGERRI (1.106 m.) Ordunte (Nava)

Bilbotik Balmasedara eta Villasana de Mena-ratz jarraituz, 8-10 kilometro ingurura, Ungo-Nava tren geltokia zeharkatuz Nava herrira helduko gara. Zubia pasatu eta gero eskumatarean doan errepidea utzita aurrera jarraituko dugu. Apur bat aurrerago, eskuinerantz jarraituz Nava de Ordunte herria pasatuz Ordunte urtegiara helduko gara.

Honen horma pasatuko dugu eta bertan hasi eta urtegiari buelta ematen dion basabidean utziko dugu autoa. Bertan, eskuin aldera eta gora doan basabidea hartuko dugu gurbitz artean, beste basabide zabal eta lauago bat topatu arte. Basabide hori eskumarantz jarraituz aterpe batera (A) helduko gara. Aterpetik ezkererantz doan basabidea hartuz, Maza de Pando (B) mendira helduko gara. Tontor horrek 1.021 metro dauka eta ordubete beharko dugu.

Eskumarantz bagoaz, Burgueño (1.043 m) gailurra aurkituko dugu, baina gure asmoa Balgerri igotzea da. Horregatik ezkeralderantz abiatuko gara gailurrez gailur Ilso de las Estacase-ra (1.038 m) heldu arte (30 minutu).

Aurrera jarraituz beste hogei minutuan Balgerri (1.106 m) tontorrean egongo gara. Kutxa gisa giltza ingelesa eta torloju oso handiak dauka.



IAKINGARRIAK

Iraupena: Balgerriaraino, ordu bi.

Zailtasuna: Erraza.

Tontorren altuerak: Burgueño (1.043 m), Maza del Pando (1.021 m), Ilso de las Estacas (1.038 m) eta Balgerri (1.106 m)

GAZTEDIREN AZKEN HAMAR URTEETAKO IBILBIDEA LIBURU BATEAN BILDU DUTE



Aurreko argitalpenean egin zuenaren ildotik, Gaztedi dantza taldeak 40. urteurrenetik 50.era bitarteko ekitaldi eta gertaeren berri eskaintzen digu oraingoan "Gaztedi 1991-2001" izeneko liburuan. Taldearen azken hamar urteetako nondik norakoak azaltzen dizkigute aurreko liburuaren jarraipen bezala. Durangoko azokan aurkeztuko duten argitalpen honetan 40., 45., eta 50. urteurrenen ospakizunez gain, 1994ko maskarada eta dantza taldearen ekitaldiak jaso dituzte, hamahiru euroko prezioan.

Aurreko liburuaren ardura Jabi Erizerena izan zen bezalaxe, oraingo argitalpenaren egilea Joselu Angulo dugu, bera izan baita azken hamar urte hauetan taldean dantzatu, antolatu eta gertatu direnak bildu dituena. Joselu Angulok dioskunez, "liburu hau aurretik argitaratu genuenaren jarraipen bat da, hau da, 40. urteurrenaren liburuaren jarraipen bat. Aurreko argitarapena Gaztediren berrogei urteen bilduma bat

zen, bertan Gaztedi sortu zenetik aurrerako dantza taldearen bizitza kontatzen genuen. Oraingoa, aurrekoarekin jarraituz, dantza taldearen ibilbidea islatu nahi izan dugu 1991etik 2001 arte. Horretarako, aurreko liburu amaitzen zen orrialdea kontuan izanda, liburu berriak hurrengo orrialdean du hasiera, hain zuzen, 161. orrialdean hasten da."

Aurreko eta oraingo argitarapenen arteko ezberdintasunei dagokienez, Joseluk honakoak komentatzen dizkigu. Batetik, azken honetan, aurrekoan ez bezala, argazki oinetan dantzariak nortzuk diren, eta ekintzak zehazkiago azaltzen dira eta gainera honako hau kolorez argitaratuta dago. Eta bestetik, dokumentazio lana errazagoa izan da, oraingoan, hamar urtetako historia kontatzean, datu bilketak ez du zailtasun handirik ekarri. Azken honek lan gutxiago suposatu die, jadanik lanen bilduma, argazkiak, apunteak... eginda zeudelako. Hasieran 50. urteurrenerako kaleratzea pentsatu zuten, baina geroago konturatu ziren aurreko liburuan bezala gertatuko zela, hau da, urteurrenari dagozkion

*Testua: Arrate Diez
Argazkiak: Gaztedi Dantza Taldea*

ospakizunak ez zirela agertuko. Beraz, 50. urtemuga eta gero kale-ratzea aproposagoa iruditu zitzaion.

MASKARADAREN ERRONKA Liburu berri honetan taldearen hainbat ekintza azpimarragarri jasotzen da. Lehenik, 40. urteurreneko ekitaldien nondik norakoak agertzen dira. Antolatutako ekitaldietan parte hartu zutenen argazkiak eta handik aurrera ospatutakoak ere. Ondoren, 1994an prestatutako maskarada da abiapuntua. Maskarada antolatzen bi urte eman zituzten Gaztediko kideek, erronka handi eta berri bati ekin baitzioten. Zuberoara hurbildu behar izan ziren dantzak ikastera gero bertan irakatsi ahal izateko, trajeak Gaztedikoei diseinatu zituzten,... Bi urteko lan gogoraren ondorioz, zuberotar maskarada oso bat aurkeztu zuten. Bertoko pertsonaiak, dantza jokoak, koplak eta prediku guztiak eginez, eta hegoaldean ulergarriagoa izan zedin zubereraren ordeaz, bizkaieraz eta batuaz egin zuten.

Hamar urte luze hauetan hainbat berrikuntza izan ditu Gaztedi dantza taldeak eta haien artean aipagarria da 1993an Maskaradarekin bat Xake izeneko txakurra ere Gaztediko lokaletara hurbildu zela. Txakurra ere Maskaradan parte hartu zuen eta handik aurrera Xake Gaztediko lokaleko "partaidea" dugu.

Gaztedik 1996an 45. urteurrena ospatu zuen. Ospakizun hauek gehien bat umei dedikatuta izan ziren. Antolatutako ekitaldietan ohiko dantzariak parte hartu beharrean, umeen zein gazteen txanda izan zen hau. Dantza ekitaldiez gain, umeentzako berbenak, pailazokak, antzerkia eta jolasak izan ziren urtemuga honen oinarria. Britainiako dantza talde bat ere hurbildu zen ospakizun honetara. Urte horretan gertatutako Santutxuko sei mendizaleen istripu tamalgarriari ere erreferentzia agertzen zaigu liburuan.

GAZTEDI ATZERRIAN

Urte batzutan atzerrian dantzatu barik egon ondoren,

Gaztedi 1991-2001



1997an Errumanian eta Portugalen dantzatu zuten. Garai hartako argazki eta kartelak liburuan islatzen dizkigute. Honen ondoren dantza taldekoek beste erronka berri bati eutsi zioten 2000an. Euskeria abesbatzarekin batera "Euskal Herria abesten eta dantzatzen duen herria" ekitaldi arrakastatsua prestatu zuten. Hainbat lekutan aurkeztu ondoren, Gaztediko kideak 50. urteurrena ospatzeko ekitaldiak prestatzen hasi ziren.

50. URTEURRENEAN "EUSKO EDERTI"

Guztira bost ekitaldi antolatu zituzten dantza taldeko kideek. Lehen, 2001eko martxoan

Berriotxoan aurkeztu zuten umeentzako ekitaldia izan zen. Ondoren, "Zazpiak bat besarka" izeneko ekitaldia Euskalduna jauregian. Honetan, zazpi herrialdetako taldeak izan ziren protagonista. Hurrengo ekitaldia ekainean izan zen. Benicasim-eko dantza talde bat etorri zen Santutxura kultur elkartruke baten ondorioz. Uztailan, nazioarteko folklore jaialdia ospatu zen Santutxuko jaietan.

ZUBEROAKO MASKARADA 94 Gaztedi Dantzari Taldeak Eman



Berton, Gaztedikoez gain, Burundiko eta Siberiako dantza taldeek hartu zuten parte.

Urte honetan bertan, Aitziber Iurtia Gaztediko kideak Bilboko Aste Nagusiko pregoia eman zuen Gaztediren izenean, dantza taldeak 50. urtemuga betetzen zuelako. Azken ekitaldia taldekideentzako garrantzi handiena zuena izan zen, Azaroaren 4an Arriaga antzokian ospatutako Gaztediko belaunaldi guztien dantzarien ekitaldia, "Eusko Ederti. Belaunaldiz belaunaldi" izenez antolatu zutena. Liburuan azken ekitaldi honi erreferentzia berezia egiten zaio, 50 urte hauen ekitaldi berezia zelako, oinarritzko ekitaldia. Hemendik aurrera, liburuaz gozatzeaz gain, hurrengo belaunaldian kaleratuko dutenaren zain egoitea besterik ez dugu. Zorionak Gaztedi!

Gelaya INMOBILIARIA
HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA - SALMENTA - ALOGERAK - ...
Iturriaga, 92
Tfona. 94 473 07 78
48004 SANTUTXU - Bilbo

ADI Oleta, s/n - 48970 BASAURI
Tel. 94 426 08 08
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO
Tel. 94 411 08 55
adiasesor@adi.euskalnet.net
**Zergak-lan harremanak
kontabilitatea juridikoa
merkatalgintza**

**PRESOAK KALERA
AMNISTIA OSOA!**
SAAK

horoskopoa

- Aries:** martxoaren 21etik apirilaren 20ra.
Begizuri hori zeure begira dago. Zeuri begira ez, zeure begira. Ea noz animatuko zaran pauso bat emoten...
- Taurus:** apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.
Azkarrago zabailz azkenaldion. Kontuz ibili, lagun, presaka ibiltzeak ez dakarrelako gauza onik.
- Gemini:** maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
Zenbat eta ordu gehiago emon ordenagailu aurrean orduan eta lelotuago ikusten zaitugu. Interneteko leiho hori noz edo noz zarratu behar dozu...
- Cancer:** ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Arratsaldeko lo kukutxo horiek ederto datoz, ezta? Beharrea horrenbeste indar gastatu eta gero, normala.
- Leo:** uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
Bizarra laster egiten ez badozu Olentzerorako baino Basajaunerako hartuko zaitue...
- Virgo:** abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
Telebistako zarama guztia ikustea moda-modakoa dala uste dozu? Ganorabako halakoa! Amata behingoz kaka hori eta itzartu zaitez!
- Libra:** irailaren 24tik urriaren 23ra.
Futboleant trebea zareala diño. Neska ala mutil, igual da, Athletic dekozu itxaroten.
- Scorpius:** urriaren 24tik azaroaren 23ra.
Durangoko azokan be agertu behar ei dozu. Bale baina zu, guzurra da Sarri handik ibilten dala standetan kuxkuxean.
- Sagittarius:** azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Astronauta izango zareala diño. Iretargian behintzat sarritan egoten zara...
- Capricornius:** abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
Zer egin jakin ezean, ez galdetu alboko horri. Lagundu beharrea nahastu egingo zaitu.
- Aquarius:** urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.
Arranopola! Nondik atara dozu itxura zantar hori? Aldatu egizu edo mila bider entzun beharko dozu 'joan hadi antzarrak perratzer' esaldia.
- Piscis:** otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Kontu barri bat suzedidu da, horko ondoko kalean, horko ondoko kalean eta... hori zoriona, ezta?

agenda

ABENDUAREN 4-8
DURANGOKO EUSKAL DISKO ETA LIBURU AZOKA.

ABENDUAREN 6-8
MENDI IRTEERA. PEÑA UBIÑA (2.417 M) MEICIN ALDETIK. (ASTURIAS).
EGUZKI LOREA
BOLUETAKO MENDI TALDEA.

ABENDUAK 8
'BIHAR' TXOTXONGILO TALDEA.
'SIRENATXOA' ANTZEZLANA.
17:30ETAN. KAFE ANTZOKIA.

ABENDUAK 8
BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETAREN FINALA. EUSKALDUNA JAUREGIA. 17:00ETAN.

ABENDUAK 14
EUSKADI GAZTEAREN MAKETA LEHIAKETAREN JAIA.
TALDE IRABAZLEAK ETA SUPERGRASSEK JOKO DUTE.
KAFE ANTZOKIAN. 21:00ETAN.

ABENDUAK 14
'PA YA EGUNA'. OTXARKOAGAN

ABENDUAK 15
GARI, MONTXO ETA JOSELONTXO PAILAZOAK. 17:00ETAN.
KAFE ANTZOKIAN.

ABENDUAK 21
SANTO TOMAS AZOKA.

ABENDUAK 22
OLENTZARO JAIA
KAFE ANTZOKIAN. 17:30ETAN.

ABENDUAK 23
TXAPELPUNK ETA POTROTAINO.
22:00ETAN. KAFE ANTZOKIA.

ABENDUAK 24
OLENTZAROA GURE AUZOETAN.

ABENDUAK 25
HERRIRA PLATAFORMAREN GABONETAKO MANIFESTAZIOA.
SANTUTXUKO KARMELOAN.

ABENDUAK 26
ZEA MAYS ETA SPLIT77.
KAFE ANTZOKIA. 22:00ETAN.

ABENDUAK 27
RUPER ORDORIKA.
KAFE ANTZOKIA. 22:00ETAN.

Benito Lertxundi

"Nere ekialdean" disko berriaren aurkezpena

Basauriko Social Antzokian
22:00etan

abenduak 20, ostirala

sarrera: 12€

Mikel Urdangarin

"Heldu artean" disko berriaren aurkezpena

Santurtziko Serantes Kultur Aretoan
abenduak 13, ostirala, 22:00etan

sarrera: 8€

udagoieneko



Topagunea
Euskara Elkarten Federazioa

babesleak



bbk

laguntzailea
MAHATZERUNGAI DIZKARIA
bertan